

Bilbon, Euskaltzaindiaren etxean, 1929'ko Oñilaren 28'an.

Euskaltzain jaun abek bildu dira : Azkue maipuru, Urkijo, Landeñetxe, Eguskitza, Olabide, Intzagarai, Altube, Intza, Lakonbe, Etxegarai ta urgazle dan Ormaetxea jauna.

I.—Batzar-aldi garai guzia Iztegiaren lanetan igaro da ta erderazko *acompañamiento* arte iritxi gera.

Beti bezela otoitzez amaitu da batzaraldia.

Donostian, Aldundi Jauregian, 1929'ko Garañilaren 26'an.

Batzar ontara euskaltzain jaun abek bildu dira : Azkue maipuru, Urkijo, Landeñetxe, Olabide, Altube, Intzagarai, Intza, Lakonbe, Etxegarai ta urgazletatik Ormaetxea jauna. Otoitzez asi da.

I.—Aurtengo Schuchardt-saria Agustin Anabitarte jaunak irabazi du, bere irakurgai *Usauri* deitzen danagatik : Euskaltzaindiak erabaki du irakurgai au argitaratzea, bañan gure Euskera-ren orialdietan : oretzaz gañera, beste 500 eleski eragingo ditu ta oietatik 100 egileari emango zaizkio.

II.—Aita Intzak dio : Iztegi-lanak auferatzeko, berak deritzala, alako batzorde bat sortzea, batzorde onek Ormaetxea jaunari zuzenbide batzuek eman dezaizkion.

Asko ta luze, onetzaz itz egin da, ta azkenean erabaki da : Batzorde au iratsi dedila ta euskaltzaiñai, aldiz-aldiz biali dizazkiela 500 bat itz; abek alde